



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2008ko ekainaren 10a

54. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, “Iruñerriko garraio publikoarentzako ekarpena. Beste talde batzuentzako gizarte-dirulaguntza” izeneko kontusailaren aplikazio eta betetzeari buruzkoa, Roberto Jiménez Alli jaunak egina (2. or.).
- Galdera, jakiteko zer neurri hartuko dituen Nafarroako Gobernuak Foru Komunitateko ekonomia hazkunderaren murriztearen aurrean, Ion Erro Armendáriz jaunak egina (3. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak asmorik ote duen heldu den ikasturtean Arte Eszenikoetako, Musikako eta Dantzako Batxilergoa eskaintzeko, María Luisa Mangado Cortes andreak egina (3. or.).
- Galdera, iragan abenduaren leian egin ziren Gazteen eta Haurren jaialdiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, 2006ko ekitaldi fiskalean sozietateen gaineko zerga dela-eta enpresetatik jasotako zenbatekoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, A-12 autobian animaliak galtzadara sartzegatik izaten diren istripuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, SOS Nafarroaren Positron kudeatzaile informatikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, Avantius eta Asigna aplikazioei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, Musikaren Hiria eraikitzeko lanen hasierari, epeei eta amaierari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, Esa eta Itoizko urtegien segurtasun planei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, “Iruñerriko garraio publikoarentzako ekarpena. Beste talde batzuentzako gizarte-dirulaguntza” izeneko kontusailaren aplikazio eta betetzeari buruzkoa.*ROBERTO JIMÉNEZ ALLI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko ekainaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Roberto Jiménez Alli jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, “Iruñerriko garraio publikoarentzako ekarpena. Beste talde batzuentzako gizarte-dirulaguntza” izeneko kontusailaren aplikazio eta betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2008ko ekainaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Roberto Jiménez Alli jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak Lege-

biltzarraren hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zioen azalpena

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko zuzenketa aurkeztu zion 2008ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorren proiektuari: “Iruñerriko garraio publikoarentzako ekarpena. Beste talde batzuentzako gizarte-dirulaguntza.” Zuzenketa onetsi zenez gero, azken irizpenean jasota geratu zen.

Zuzenketa haren zioen azalpenean adierazi genuen kontusailak helburua zuela talde jakin batzuek garraio publikoa erabiltzea eta garraio publikoa sustatzea. Alderdi sozialistaren borondatea da laguntza horiek gazteentzat izatea, garraio publikoaren erabileraren alde sentsibilizatze aldera eta, hartara, atmosferara jaurtitzen diren negutegi-efektuko gasak murrizte aldera.

Galderaren testua

Zertan da kontusail horren betetzea eta aplikazioa eta, hortaz, horren helburu berariazkoen erdi-estea?

Iruñean, 2008ko ekainaren 4an

Foru parlamentaria: Roberto Jiménez Alli

Galdera, jakiteko zer neurri hartuko dituen Nafarroako Gobernuak Foru Komunitateko ekonomia hazkundearen murriztearen aurrean.

ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko ekainaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko zer neurri hartuko dituen Nafarroako Gobernuak Foru Komunitateko ekonomia hazkundearen murriztearen aurrean.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2008ko ekainaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko eledun Ion Erro Armendárizek, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, gaurkotasuneko ondoko ahozko galdera aurkeztu du, hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Ekonomia eta Ogasun kontseilariak iragarri du Nafarroaren ekonomia hazkundera berriz ere murriztuko dela 2008an, % 2,3raino murriztu ere.

Ikusita Nafarroaren ekonomia hazkundera berriz ere murrizteak kalte egingen diela etxeko ekonomiei oro har, zer aparteko neurri hartuko ditu Gobernuak horren aurrean?

Iruñean, 2008ko ekainaren 9an

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak asmorik ote duen heldu den ikasturtean Arte Eszenikoetako, Musikako eta Dantzako Batxilergoa eskaintzeko.

MARÍA LUISA MANGADO CORTES ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko ekainaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa Mangado Cortes andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak asmorik ote duen heldu den ikasturtean Arte Eszenikoetako, Musikako eta Dantzako Batxilergoa eskaintzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2008ko ekainaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari María Luisa Mangado Cortesek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, ahoz erantzuteko honako ezohiko galdera aurkeztu du, ekainaren 12rako deitutako Osoko Bilkurarako, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuko kontseilariak erantzun dezan:

Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak, azaroaren 2ko 1467/2007 Errege Dekretuaren bidez, Batxilergoaren egitura ezarri zuen eta haren gutxieneko irakaskuntzak finkatu zituen (horien artean, Arte Eszenikoetako, Musikako eta Dantzako Batxilergoak).

Batxilergo berri horren ezarpenak hainbat sektoretan sortu duen interesa ikusita, eta kontuan

hartuta arte horiek garatzea Kulturarako ezinbestekoa dela gizarte orotan, Nafarroa Baik uste du beharrezkoa dela batxilergo mota hori eskaintzea 2008-2009 ikasturterako aurrematrikulazioan, las-ter eginen baita. Hori dela-eta, parlamentari honek ondoko ahozko galdera egite du:

Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik heldu den ikasturtean Arte Eszenikoetako, Musikako eta Dantzako Batxilergoa eskaintzeko Nafarroako Foru Komunitatean?

Iruñean, 2008ko ekainaren 9an

Foru parlamentaria: María Luisa Mangado Cortes

Galdera, iragan abenduaren 1ean egin ziren Gazteen eta Haurren jaialdiei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du iragan abenduaren 1ean egin ziren Gazteen eta Haurren jaialdiei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2008ko otsailaren 18ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko martxoaren 5ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Nafarroaren Egunaren kariatara egindako Gazteen Jaialdiari eta Haurren Jaialdiari buruz. Hona erantzuna:

Nafarroako Gobernuak dirulaguntza eman zion Nafarroako Kutxari, Gazteen Jaialdia eta Haurren

Jaialdia sustatzeko, zeinak Iruñean, Tuteran eta Lizarran antolatu baitziren Nafarroaren Egunaren kariatara. Horretarako, lankidetzaz-hitzarmen bat sinatu zuen aipaturiko entitatearekin.

Hitzarmen horretan jasota dago Nafarroako Gobernuak ordaindu beharreko zenbateko efektiboak ezin izanen duela inolaz ere 190.000 eurotan ezarritako muga gainditu.

Nafarroako Gobernuak ordaindu beharreko zenbateko efektiboa zehazteko, oinarritzat hartu dira jaialdiek eragindako ondoko gastu hauek:

Artistak:	200.500,00 €
Azpiegiturak eta produkzioa:	234.178,26 €
Guztira (BEZ gabe)	434.678,26 €
BEZ (% 16):	69.548,52 €
Gastuak, guztira:	504.226,78 €

Dirusarrereri dagokienez, ondokoak izan dira kopuru konputagarriak, hitzarmenean ezarritako kontzeptuekin bat:

	Dirubilketa Sarreren salmenta	Hobariak Nafarroako Kutxa
Gazteen Jaialdia Iruña	121.574,97 €	9.273 €
Haurren Jaialdia Iruña	13.176,02 €	5.100 €
Haurren Jaialdia Tuteran	5.520,85 €	2.200 €
Haurren Jaialdia Lizarra	7.382,18 €	3.300 €
Guztira (BEZ gabe)	147.654,02 €	19.873 €
BEZ (%7):	10.335,78 €	
Guztira	157.989,80 €	

Kontuan izanik gastuen eta sarrerren arteko aldea 190.000 euro baino gehiagokoa dela, hori da Nafarroako Kutxari ordaindu zaion dirua.

Jaialdietako bakoitzera joandako pertsonen kopuruari dagokionez, ondoko datuak eman dizkigute:

Gazteen Jaialdia Iruña:	7.000 pertsona
Haurren Jaialdia Iruña:	3.000 pertsona
Haurren Jaialdia Lizarra:	1.500 pertsona
Haurren Jaialdia Tuteran:	1.200 pertsona

Azkenik, Nafarroako Gobernuari 270 gonbidapen eman zitzaizkion Gazteen Jaialdirako, eta banatu egin ziren Gobernu departamentuen artean eta beste erakunde batzuen artean, Iruñeko Udala kasu. Gainera, Nafarroako Parlamentuari 76 gonbidapen eman zitzaizkion, bi igorpenen bidez.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua betetzeko.

Iruñean, 2008ko martxoan

Erakundeekiko Harremanetarako kontseilaria:
Alberto Catalán Higuera

Galdera, 2006ko ekitaldi fiskalean sozietateen gaineko zerga dela-eta enpresetatik jasotako zenbatekoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du 2006ko ekitaldi fiskalean sozietateen gaineko zerga dela-eta enpresetatik jasotako zenbatekoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2008ko otsailaren 18ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Foru Ogasunak Sozietateen gaineko Zergaren bidez egindako dirubilletari buruz. Hona Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

1. Gure erregistroetan dauden Sozietateen gaineko Zergaren aitortuetan ageri diren datuen arabera, Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasiboek ondoko zenbatekoa aitortu zuten 2006ko zergaldian:

– 100eko 35eko zerga-tasa duten sozietateak: 209.911.195,75 euro.

– Enpresa txikiak eta zerga-tasa 100eko 35ekoa ez duten sozietateak: 138.147.508,42 euro.

Kopuru horiek 40. kodean aitortutako zenbateko positiboak dagozkie (kuota osoa ken kenkariak), Nafarroari zergetan eman beharreko portzentajearekin biderkatu ondoren, kasua bada. Edonola ere, Sozietateen gaineko Zergaren aitortuen horiek Nafarroako araudia aplikatu zaie, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren 18. artikuluekin bat.

2. Ondokoa da batez besteko karga-tasa efektiboa –hori kalkulatzeko, honako eragiketa egin behar da: kuota osoari kenkariak kendu ostean (40. laukia), emaitza hori likidazio oinarriaren zenbateko bateratuarekin zatitu (07. eta 02. laukiak, Nafarroako taldeen 220 ereduaren), eta zatiketaren emaitza ehunekin biderkatu–:

– 100eko 35eko zerga-tasa duten sozietateak: %19,97

– Enpresa txikiak eta zerga-tasa 100eko 35ekoa ez duten sozietateak: %19,78

Iruñean, 2008ko martxoaren 5ean

Bigarren lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

Galdera, A-12 autobian animaliak galtzadara sartzetatik izaten diren istripuei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José María Vázquez Royo jaunak galdera egin du A-12 autobian animaliak galtzadara sartzetatik izaten diren istripuei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2008ko otsailaren 18ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José María Vázquez Royo jaunak galdera egin du Donejakue bideko A-12 autobien funtzionamenduen kontrolari buruz. Hona Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna.

1.- Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak informazio osoa dauka Nafarroako errepide sarean fauna ustekabeen sartzearen ondorioz sortzen ari diren arazoei buruz. Hori, zehazki, Donejakue bideko A-12 autobien gertatzen ari da, Iruña eta Logroño artean, eta arazo horiek arintzeko, departamentua hartzen ari da egoki ikusten dituen neurriak.

Emakidadun enpresan dauden ikuskapen taldeek sistematikoki erregistratzen dute Donejakue bideko autobien harrapatzeak gertatzen diren edo faunari sartzeko den. Informazio hori ustiapentxostenean jasotzen da, eta Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuari bidaltzen zaio; horrek informazio hori egiaztatu egiten du, Nafarroako Gobernuak errepideen zaindarien eta departamentuak A-12 autobien ustiapena kontrolatzeko duen laguntza teknikoak igorri dioten informazioarekin alderatuz. Gainera, informazio hori Nafarroako Gobernuak Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari igortzen zaion informazioarekin ere egiaztatzen da, hots, ondare erantzukizuna dela-eta egin diren eskarien espedientei buruzko informazioarekin.

Badakigu 2007. urtean guztira 13 istriputan eskatu zela ondare-eskakizuna.

2.- Faunari dagokionez, ondoko neurri hauek hartu ziren A-12 autobian:

a) Lehenik eta behin, istripu bat gertatzen den bakoitzean edo autobian fauna dagoela detektatzen denean, Autovía del Camino, S.A. emakidadun enpresaren langileek sarrera-gunea ikertzen dute: inguru horretako hesiak berrikusten dituzte edo gertuen dauden lotuneetatik fauna sartzearen oinatzak edo aztarnak ikertzen dituzte. Hesieta hutsunerik topatzen bada, horiek berehala konpontzen dira.

b) Gainera, laguntza teknikoak itxituren egoeraren ikuskapena egiten du hilerok, alde batera utzita emakidadun enpresaren langileek egiten dituzten ikuskapenak. Hutsunerik edo kalterik detektatzen bada, Autovía del Camino, S.A. emakidadun enpresari agintzen zaio berehala konpon dezan.

c) Bestalde, eta Nafarroako ehizari eta arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legearen hirugarren xedapen iragankorrean aurreikusitakoa betez, emakidadun sozietateak seinaleztapen ofiziala jartzeari ekin zion, "P-24, lotu gabeko animalien iragaitea", arrisku handienera puntuetan.

d) Neurri zuzentzaile horiez gain, lotuneetatik sartzeko balizko bideak ere aztertzen ari dira, nahiz eta oraindik ere ezin den behin betiko ondorioz atera, autobien denbora gutxi daramalako zerbitzuan. Azterketa horri esker, lotune jakin batzuetarako neurri zehatzak atera ahal izanen dira.

3.- Nafarroako errepide sarean gertatzen diren istripuen ondare-erantzukizunak Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari eskatzen zaizkio, eta Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuan dagoen Araubide Juridikoko Atalak izapidetzen ditu, indarrean dagoen araudiarekin bat. Kontuan izanik errepidera gehien sartzeko den fauna ehizarako fauna dela, aplikatzen da aipaturiko Nafarroako ehizari eta arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legearen ezarritakoa:

"86. artikulua. Ehizarako animaliek kalteak eragitea.

1. Ehiza espezieak harrapatzearen ondorioz gertaturiko istripuen kasuan, ehizaren arloan eskumena duen departamentuak dagokion espediente administratiboa tramitatuko du gerta litezkeen erantzukizunak zehaztu ahal izateko; honelakoak izan daitezke:

a) Animalia harrapatu duen gidaria, istripua ekiditeko behar adinako neurriak hartu ez baditu edo zirkulazioari buruzko arauak urratzea egotzi ahal bazaio.

b) Ehiza aprobetxamenduaren titularra edo, bidezkoa denean, eremu mugatuaren titularra, baldin eta istripua ehiza barrutia axolarik gabe kudeatzearen ondorioz edo ehiztarien ekintzen ondorioz gertatzen bada.

c) Ehizaren arloan eskumena duen administrazioa, ehiza aprobetxamendua antolatzekeo xedapenen ondorioz gertatzen bada istripua.

d) Istripua gertatu den bide publikoa ustiatzen duen titularra, istripua animaliek bidea hartzearen aurkako babes neurriak ez kontserbatzearen ondorioz gertatzen baldin bada, betiere haien mantentzea bidea ustiatzen duen titularraren erantzukizuna denean, edo, bestela, istripua ehizara

faunaren iragatea iragarriko duten seinale egokiak ez egotearen ondorioz gertatzen bada.

2. Lege zibilen arabera erantzule direnek ordainduko dituzte ehizarako edo arrantzarako basa animaliek eragindako gainerako kalteak.

3. Ehizarako animaliek bide-istripuetan kalterik eragiten dutenerako, dirulaguntza arautuko da aseguru-mekanismoa ezartzen laguntzeko. Aseguru horrek Nafarroako ehiza aprobetxamenduen titularren erantzukizuna estaliko du.”

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren testu bateginaren 192.1. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko martxoaren 4an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

Galdera, SOS Nafarroaren Positron kudeatzaile informatikoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du SOS Nafarroaren Positron kudeatzaile informatikoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2008ko otsailaren 18ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du Positrónari buruz eta Nafarroako Larrialdietako Agentziak kudeaketa informatikorako dituen beste baliabide batzuei buruz. Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

1.- Lehendik erabiltzen zen komunikabide-sistema Positrón sisteman integratzeari dagokionez, adierazi behar da Tetra irrati digitalaren sistema erabat integratu zela Positrón sisteman. Hori egin zen irrati sistemaren fabrikatzaileak emandako software estandar baten bidez. Integrazio hori ofi-

zialki gauzatu zen 2004ko ekainaren 6an, sistema behin betikoz hartu zenean.

2.- Autobia eta autobideetan dauden SOS zutoinen bidezko komunikazioa dela-eta, lehenik argitu behar da zutoin horien funtzioa dela erabiltzaileak harremanetan jartzea zutoin horien kontrol zentroarekin, erabiltzaile horiek zailtasunen bat duten guztietan. Larrialdi bat dagoenean, komunikatzaileak 112 telefonora deitzen du, eta bertatik kudeatzen da larrialdi hori, ezarritako protokolo guztiekin bat.

Aipaturiko zutoin horietatik egiten diren dei gehienak ez direnez larrialdi deiak, egokitzen jo da dei horiek zuzenean ez sartzeko larrialdiak kudeatzen dituen sistemara, zeren eta, hala balitz, egoiak ez diren deien kopurua areagotu eta lana oztopatuko bailitzateke eta benetako larrialdiak diren kasuei eman beharreko arreta mantsotuko bailitzakete. Jardunbide horixe bera da larrialdiak kudeatzeko zentro gehienetan ezarri dena.

3.- Trafikoko Zuzendaritza Nagusiaren ibilgailu-eta datu-baseetara sartzeari dagokionez, gogoratu behar da, azkartasunaren eta eraginkortasunaren mesedetan, SOS Nafarroaren helburu iraunkorra dela erraztea eta lehenestea kudeatzailearen jardun eraginkorrerako garrantzitsuenak diren funtzionalitateak. Hori dela-eta, denborak

aurrera egin ahala, aldatuz joan dira SOS Nafarroaren beharrianak eta lehentasunak; hortaz, bere garaian komenigarritzat jo zen zenbait azpistema ez integratzea; izan ere, dela teknologia zahar samarra zutelako, dela kudeaketa arrunterako interesgarriak ez zirelako, haietara baliabide handirik bideratzea ez zen egokia ez eta efizientea ere.

Horixe izan zen Trafikoko Zuzendaritza Nagusiaren ibilgailuetako datu-baseetara sartzearen kasua. Hala ere, konexio hori mantentzen da Foruzaingoaren Agintaritzaren eta Kontrol Zentroan, erabilgarria eta eraginkorra baita. Zentro horrek SOS Nafarroak erabiltzen duen sistema bera darabil, eta sistema horretarako sarbidea azken horri eman zitzaion.

4.- Positrón sistemak SMS mezuak igortzea ahalbidetzen du. Jadanik erabilgarri dago eta ekoizpen fasean, 2006ko ekainaren 16tik.

5.- Positrón sisteman telelaguntza integratzeari dagokionez, kasu horri aplikatu dakioke 3. puntuazaldutako irizpidea. Hala ere, eta telelaguntzaren kudeaketak izan duen esperientzia ikusirik (kudeaketa hori egiten da SOS Nafarroaren operadoreak dauden gela beretik), beharrezkoak diren neurriak hartzen ari dira Positrón sisteman integratu ahal izateko.

Integrazio hori egiten da 2008ko ekitaldi honetan zehar, ekipoen eta aplikazioen berrikuntzarekin batera. Berrikuntza horiek Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaien Departamentuarekin batera aztertu eta onartu dira, departamentu horren mende baitago Telelaguntzaren programa.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikulua eta hurrengoak betetzeko.

Iruñean, 2008ko otsailaren 26an

Lehendakaria, Justizia eta Barne kontseilaria:
Javier Caballero Martínez

Galdera, Avantius eta Asigna aplikazioei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du Avantius eta Asigna aplikazioei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2008ko otsailaren 18ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du Avantius eta Asigna aplikazioei buruz. Parlamentuko Mahaiak izapidetzeko onartu zuen galdera hori 2008ko otsailaren 11n. Hona Lehendakaria, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

1.- Avantius eta Asignaren arteko integrazioa aztertu eta baloratu ondoren, integrazioa egiteko aplikazio bat garatu da, dagoeneko ezarri dena

eta ekoizpen fasean dagoena. Azken emaitza ona izan da.

2.- Integrazioa egiteko aplikazio horretaz gain, eta balizko garapen berriei dagokionez, adierazi behar da horiek modu orokorrean sartuta daudela Trabajos Catastrales, S.A. enpresa publikoari eman zaizkion aginduetan, eta horiei buruzko aipamenak egiten dira hurrengo paragrafoetan.

3.- Justizia Zuzendaritza Nagusiaren aplikazio guztien lehen mailako euskarri funtzional eta teknikoari dagokionez, adierazi behar da hori modu orokorrean sartuta dagoela Nafarroako Gobernuko Administrazio Erroarentzat sinatu zen kontratu orokorrean, hots, lehen mailako euskarri informatikoentzako zerbitzuak emateko laguntza teknikoari buruzkoan. Aipaturiko euskarri hori, orain arte, Computadores Navarra, S.A. enpresak eman du, aipaturiko kontratu orokor horretan dagoen luzapenaren ondorioz –hori onartu zen Informazioaren Gizarterako zuzendari nagusiak urtarrilaren 17an emandako 6/2007 Ebazpenaren bidez–. Luzapen horren zenbatekoa, 2007. urterako, 1.070.275,62 eurokoa izan zen.

Halaber, Justizia Zuzendaritza Nagusiaren aplikazio guztien bigarren mailako euskarri funtzionala modu orokorrean sartuta dago Nafarroako Gobernuak eta bere erakunde autonomoek dituzten sistema informatikoentzako bigarren mailako laguntza teknikoa jasotzen duen kontratu orokorrean. Euskarri hori, orain arte, Computadores Navarra, S.A. enpresak eman du, aipaturiko kontratu orokor horren esleipenaren ondorioz –hori onartu zen 580/2006 Ebazpenaren bidez, Informazioaren Gizarterako zuzendari nagusiak abenduaren 9an emandakoa–. Esleipenaren zenbatekoa, 2007. urterako, 1.564.136,14 eurokoa izan zen.

Nafarroan Justiziaren kudeaketa eusten duten aplikazioen bizi-zikloen kudeaketa eta garapen berrientzako laguntza teknikoa dela-eta, barne hartuta garapen ebolutiboa, zuzentzailea eta azpiegituren proiektuak, lan hori agindu zitzaion Trabajos Catastrales, S.A. enpresa publikoari –hori onartu zen 181/2007 Ebazpenaren bidez, Informazioaren Gizarterako zuzendari nagusiak apirilaren 4an emandakoa–. Agindu horren zenbatekoa, 2007rako, 899.961,57 eurokoa izan zen.

4.- Aplikazioaren mantentze lanei dagokienez, 2003tik egundaino, beharrezkoa da argitzea aplikazio informatikoen ez dutela beren mantentze lanetarako aurrekontu-egozpen zehatzik, izan ere hori, bere maila eta modalitate ezberdinetan (zuzentzailea, ebolutiboa, garapenak, eta abar), sartuta dago ezberdindu gabe izaera globala duten kontratu edo aginduetan, aurreko atalean dagoeneko adierazi denez. Hori horrela, ez dago Avantius eta Asignaren mantentze lanen kostu zehatza adierazterik.

Hala ere, gehiago zehazteko, hauxe adierazi behar da:

– Lehen mailako euskarri informatikoentzako zerbitzuak emateko laguntza teknikoari buruzko kontratu orokorrei dagokienez, Justizia Zuzendaritza Nagusiaren aplikazioei buruzko atalak 745.717,11 euroko kostua izan du 2003. urtetik hona.

– Bigarren mailako euskarri informatikoentzako zerbitzuak emateko laguntza teknikoari buruzko kontratu orokorrei dagokienez, Justizia Zuzendaritza Nagusiaren aplikazioei buruzko atalak 745.323,23 euroko kostua izan du 2003tik hona.

– Nafarroako Foru Komunitateko Justizia Administrazioaren egoitza judizialentzako zerbitzu mailari buruzko kontratua egin zen 2005ean, eta 453.123,84 euroko kostua izan zuen.

– Nafarroan Justiziaren kudeaketa eusten duten aplikazioen bizi-zikloen kudeaketa eta garapen berriei laguntza teknikoa emateko aginduak, horien artean sartuta garapen ebolutibo eta zuzentzailea eta azpiegituren proiektuak, 2006tik 2007ra bitartean gauzatu dira, eta 1.041.730,61 euroko kostua izan dute.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikulua eta hurrengoak betetzeko.

Iruñean, 2008ko martxoaren 4an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria:
Javier Caballero Martínez

Galdera, Musikaren Hiria eraikitzeke lanen hasierari, epeei eta amaierari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

María Luisa Mangado Cortes andreak galdera egin du Musikaren Hiria eraikitzeke lanen hasierari, epeei eta amaierari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2008ko otsailaren 29ko 20. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Obren hasierarako aurreikusitako data: 2008ko abendua

Amaiera: 2011

Lanen plangintza erantsi dugu, hilabeteka.

Iruñean, 2008ko otsailaren 29an

Obra eta Mantenimendu Zerbitziburua: Irache Fernández Arellano

(Oharra: aipaturiko eranskina foru parlamentarien eskura dago 7-08/PES-00073 espedientean, ondoko web helbidean hain zuzen:

<http://actividad.parlamento-navarra.es:8080/AgoraWeb/>

Galdera, Esa eta Itoizko urtegien segurtasun planei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Esa eta Itoizko urtegien segurtasun planei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2008ko otsailaren 18ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Itoiz eta Esako presen segurtasunarekin zerikusia duten zenbait gairi buruz. Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

1.- Aipaturiko presen segurtasun-planen jarraipena eta aplikazioa dela-eta, lehenik eta behin jakinarazi behar da, Uholde Arriskurako Herritarren Babesari buruzko Oinarrizko Artezpideari jarraikiz, Ebroko Konfederazio Hidrografikoak larrialdi plan bat egin zuela bere garaian, Itoizko presaren eta haren presa laguntzailearen jabea den

aldetik. Plan hori Espainiako Herritarren Babeserako Batzordearen Batzorde Iraunkorrek homologatu zuen, 2002ko otsailean.

Onespen horren bidez, presaren larrialdi plana automatikoki sartu zen Nafarroako Foru Komunitateko Uholde Arriskurako Larrialdi Plan berezian. Plan horren helburua da baliabide eta zerbitzu publikoen nahiz pribatuaren antolamendua eta jarduketara prozedurak ezartzea, guztien arteko beharrezko koherentzia bermatzeko, eta edozein gertakariaren aurrean jarduera azkarra eta koordinatua bermatzeko. Plan hori idatzi zen aipaturiko Oinarrizko Artezpide horrekin bat, eta Espainiako Herritarren Babeserako Batzordeak homologatu zuen 2002ko otsailean. Plana otsailaren 25eko 45/2002 Foru Dekretuan onetsi zen eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Eta, hain zuzen ere, Plan horretan aurreikusitakoa aplikatuz, eta bere eskumenez baliatuz, Nafarroako Gobernuak jarraipen bat egiten die segurtasun-plan horiei, eta haien ezarpen efektiboa egiten du.

2.- Itoizko segurtasun-planaren egoerari dagokionez, gehitu behar da ezen, aurreko puntuan aipaturiko homologazioa egin ostean, Itoizko pre-

saren larrialdi plana onartu zela Obra Hidraulikoen eta Uraren Kalitatearen zuzendari nagusiak emandako ebazpenaren bidez, 2002ko martxoaren 26an. Era berean, eta orduantxe, Konfederazioak plan hori ezartzeko proiektua egin zuen eta gauzatzeari ekin zion.

3.- Aurreko puntuetan azaldu denez, formalki, presaren jabeari dagokio plana egiteko ardura osoa. Kasu honetan, Ebroko Konfederazio Hidrografikoari dagokio.

Dena den, Espainiako Herritarren Babeserako Batzordearen Batzorde Iraunkorra izan zenez homologazioa onartu zuena, eta Nafarroako Gobernuak ordezkari bat duenez bertan, ildo horretatik esan daiteke Nafarroako Gobernuak prozesu hartan parte-hartze aktiboa izan zuela.

4.- Presaren larrialdi planak eraginkortasunez ezartzeko, eta urtegiaren jabearen eta administrazio publikoen (zentrala, autonomikoa eta bertakoa) arteko elkarlana eta koordinazioa eskatzen duten ekintza horiei dagokienez, plana ezartzeko batzorde bat eratu da, ondoko kideek osatua: presaren jabearen ordezkari bat, estatuko herritarren babeserako ordezkari bat, dagokion konfederazio hidrografikoaren ordezkari bat eta ukitutako autonomia erkidegoetako bakoitzeko ordezkari bat. Batzorde hori Nafarroan eratu da, Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren jabetzapekoak diren presentzat,

eta gainbegiratu du Itoizko presaren planaren ezarpena eta hedapena.

Koordinazioaren ildotik, gaineratu behar da Nafarroako Gobernuak eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoak ondokoei buruzko informazioa eman dietela presaren behe aldean egoteagatik, presa hautsi edo hondatuz gero urpean geratzeko arriskua duten udalerriei: presaren planaren edukiri buruzkoa eta Nafarroako Gobernuaren Uholde Arriskurako Planari buruzkoa, eta nola egin behar duten udal jarduketa plana kasu horietarako.

5.- Aipaturiko plan hori amaitzeko epeei dagokienez, adierazi behar da presaren plana osatzen duten azpiegituren, instalazioen eta gailuen obrak 2003ko abenduan amaitu zirela. Halaber, amaitutzat jotzen da planaren hedapena, Nafarroako Gobernuak, Ebroko Konfederazio Hidrografikoarekin batera, azken asteotan egin duen planaren plangintza eta ezarpenarekin. Hori guztia, betiere, kaltetu gabe aipaturiko presek irauten duten bitartean prestakuntza, informazio eta oroitarazpen ekintzak.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikulua eta hurrengoak betetzeko.

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria:
Javier Caballero Martínez

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 47,00 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,25 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,40 »	